

Nafarroako Gobernuaren eraso salatzeko manifestaldia martxoaren 22an

EUSKAL KOMUNITATEAK, beste behin, kalera ateratzeko deia egin du. Nafarroako Gobernuak ia ito du euskara sustatzeko edonolako ahalegin pribatu zein publiko. Euskararen aurkako eraso salatuko dute martxoaren 22an Iruñeko kaleetan, *Euskaraz biziz, Nafarroako Gobernuaren eraso egi aurre egin diezaiegun* lelopean.

Euskal komunitateak agiria plazaratu du, eta ondokoa dio: “Euskaraz aritzen garenok arrotz gisa tratatzen gaitu gobernuak, eta gure lurrian berean desagerrarazi nahi gaitu”. Euskaingintzaren ustez, Nafarroako Gobernuak euskararekiko duen amorrua adibide askotan ikus daiteke: D eredia kakazteko Guardia Zibilaren sasitxostena, elkarbizitzaren aitzakian D ereduko ikastetxeetan funtzionamendua erdaldundu nahia, ETB sare digitalan ikusteko debekua eta euskaltegiak itotzea diru-laguntzarik gabe, besteak beste. Ikastetxeak, euskaltegiak, udalak, hedabideak... esparru



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

AEK eta IKako euskaltegiak kideak diru-laguntzarik eza salatzeko elkarretaratzean.

oro baliatu du Gobernuak euskal hiztunen kontra egiteko. Udal eta mankomunitateei emandako diru-laguntzen bilakabidea adibide bat

baino ez da. 2001etik 2012ra %82 jaitsi dira laguntzak, 860.000 eurotik 131.000 eurora. 2013an diru partida exekutatu ere ez zen egin.

TERMOMETROA • EKONOMIAREN TALAIAN

Duintasuna, genozidio sozialaren kontra

HEGO EUSKAL HERRIKO hainbat tokitan langabeziaren, prekarietatearen eta pobrezia kontrako mobilizazioak izan dira. Herritarren zati handi bat benetako “genozidio soziala” sufritzen ari da. Gehiengo sindikalak eta eragile sozialek deitutako mobilizazio horiek aste honetan izango dute amaiera, hilaren 22an, Madril duintasunaren alde egingo den manifestazioan. Ekitaldi horretan bat egingo dute Espainiako Estatuko hainbat tokitatik abiatutako martxek, sindikatu eta gizarte erakunde ugariaren babesarekin.

Hego Euskal Herrian langabezia tasa %17koa da, Europar Batasuneko baina 6 puntu altuagoa. Otsailaren amaieran Hego Euskal Herrian 229.118 pertsona zeuden lanik gabe, batez ere emakumeak eta gazteak. Paroan dauden pertsonen ia erdiak ez du inolako langabezia saririk jasotzen. Prekarietatea gero eta larriagoa da. Kontratu berrien %92,4 denbora baterako baino ez dira. EAEko eta Nafarroako gobernuak prestazio sozialak murrizten segitzen dute. EAEn 157.000 pertsona pobrezia arriskuan daude (biztanle-

riaren %7,2); 100.000 inguruk elikadura arazoak dituzte. Nafarroan 50.000 pertsona daude pobrezia larrian, biztanleriaren %8. Emakumeak dira pobrezia eta prekarietate dinamika zital hori gehien sufritzen duten kolektiboetako bat.

Arrazoiak soberan daude langabeziaren, prekarietatearen eta pobrezia kontrako mobilizatorako. Euskal gehiengo sindikal eta sozialak aldaketa erabatekoa eskatzen diete gobernuari; alda ditzatela banku eta multinazionalen mesede egiten dieten politikak, “genozidio soziala” sortzen dutenak. Hala, neurri konkretuak eskatu dituzte, prekarietate eta bazterkeria sozialera jaurtitako horiei duintasuna ekarriko dieten eskubideak lortzeko. Etorkizunera begira ez dirudi ezer onik datorrenik, iragarpen ofizialek diotenaren kontrara. Genozidio soziala sakonagoa izan liteke. Ea gure duintasuna hari aurre egiteko adinakoa den!



Juan Mari Arregi